



Kaixo,

Amasa-Villabonako Udaletik zuekin harremanetan jartzen gara, zalantza batzuk argitzeko asmoz.

Pasa den uztailaren 15ean, Xabat Laborde Villabonako alkateordea Buruntzaldeko Lurraldebus zerbitzu berriari buruzko bilera batean izan zen Donostian, Buruntzaldeko beste hainbat udal ordezkariarekin batera. Bileran hartan, Irurako eta Villabonako ordezkariak eskaera zehatz bat egin zioten Rafaela Romero mugikortasun diputatuari eta bileran zeuden Aldundiko Mugikortasun saileko teknikariei. Honakoa zen eskakizuna:

Tolosa-Donostia herriz herriko zerbitzuan (BU-07) autobus zerbitzuen frekuentzia 30 minuturokoa izatea, emakida berria baino lehen zegoen frekuentzia berreskuratuz.

Bileran bertan, Aldundiko ordezkari politiko eta teknikoek eskaera onartu zuten, eta ahoz adierazi zuten 2021eko irailean zerbitzu hori 30 minuturokoa izateko beharrezko aldaketak egingo zirela. Ondorioz, Villabonako Udalak eskaera onartuzat hartu zuen eta herritarrei informatu zien irailean BU-07 lineako zerbitzua 30 minuturokoa izatera bueltatuko zela. Herritarrek begi onez hartu zuten aldaketa hori eta horrela adierazi zioten udalari.

Gure harridurarako, pasa Irailaren lehen astean Aldundiko Mugikortasun Sailak publikoki aurkeztu zituen Buruntzaldeko Lurraldebus zerbitzuan Irailaren 13tik aurrera martxan jarriko diren aldaketen zerrendan, BU-07 zerbitzua bere horretan mantentzen dela ikusi dugu.

Hau azalduta, azalpen batzuk eskatu beharrean aurkitzen gara:

- Aldundiko Mugikortasun sailak, Lurraldebus BU-07 zerbitzua 60 minutukoa izatetik 30 minututakoa izatera pasatzeko asmoarekin jarraitzen du?
- Horrela bada, zergatik ez da aldaketa hori beste aldaketekin batera publikoki adierazi?

Zintzoki espero dugu arazo teknikoak edo denbora arrazoiak izatea, bere momentuan ahoz baieztatu zitzaigun aldaketa oraindik ez egikaritzearen arrazoia.

Bestalde, Tolosako Orixe Institutuan ikasten duten hainbat ikasleren gurasoak Villabonako Udalarekin harremanetan jarri dira, Orixe Instituturako autobus zerbitzua murriztu dela salatuz (dirudienez lehen 2 autobus zeuden eta orain bakarra) eta ikasleek garraio publikoaren bidez klaseetara garaiz iristeko zailtasun handiak dituztela azalduz.

Villabonako Udalak, guraso hauek egiten duten salaketarekin bat egiten du eta ikasketa zentzura joateko garraio publikoak duen garrantzia kontuan izanda, Orixe Institutu publikorako autobus zerbitzuak, pasa den ikasturtean zuen egoerara bueltatu behar duela aldarrikatzen du.

Zuen erantzunen zain geratzen gara.  
Agur bero bat.

**Amasa-Villabonako Alkateak,**

